

ERDIALDEKO **AMERIKAKO** IPARRALDEKO MEATZARITZA- ESTRAKTIBISMOARI *buruzko* **EUSKAL BIRA**



INPAKTUEN ETA HERRI ERRESISTENTZIEN AZTERKETA TXOSTENA

2 025eko uztailaren 7tik 20ra bitartean, *Erdialdeko Amerikako iparraldeko meatzaritza-estraktibismoari buruzko euskal bira* Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren izan zen. Biran, Euskal Herriko eta Erdialdeko Amerikako hainbat militante, akademikok eta kazetarik eskualdeko meatzaritzako megaproiektu nagusien inpaktuak aztertu eta horien aurkako herri erresistentziak lagundu genituen.

Hala, zuzenean ezagutu ahal izan genituen honako megaproiektu hauek eragindako gatazka ekosozialak: Asunción Mita herrian (Jutiapa, Guatemala) kokatutako Cerro Blanco urre-meategia, Kanadako Aura Minerals enpresarena; El Estor herrian (Izabal, Guatemaka) nikela erauzteko Fénix proiektua, Soulway Investments enpresak Fénix Nickel filialaren bitartez lideratua; Los Pinares/Ecotek inbertsio-enpresak bultzatutako burdin oxidoen meategia, Guapinolen (Tocoa, Colon, Honduras) erauzketa eta energia arloetako megaproiektu-konglomeratuaren ardatza dena; eta urrearen eta beste metal batzuen meatzaritza El Corpus herrian (Choluteca, Honduras). Gainera, El Salvadorreko gobernuak 2017tik metalen meatzaritza debekatzen zuen legea indargabetu du. Horrek Cabañas bezalako eskualdeetara meatzaritza itzultzea eragin dezake. Hain zuzen ere, Cabañas izan zen El Dorado meategi historikoaren kokagunea. Eta hori guztia autokrazia neoliberal gero eta handiagoko testuinguru batean.

Meatzaritza-estraktibismoaren azterketan zentratu gara; izan ere, metalen meatzaritza lehen mailako fenomeno politiko eta ekonomiko global gisa hedatzen ari da. Mota guztietako metalen eskariak gora egin du (kobalto, litioa, nikela, lur arraroak, platinoa, kobrea, etab.), kapitalismo oliba-berdearen eta digitalaren sektore nagusiak bultzatzeko (energia berriztagarriak, ibilgailu elektrikoa, gailu elektronikoak, armak). Halaber, urrearen nazioarteko prezioak gora egin du.



Horrek guztiak metalen meatzaritza hedatzeko interesa piztu dute, eta horretarako megaproiektuak bultzatzen dituzte mundu mailan -batez ere, herrialde pobretuetan-, nahiz eta sistema ekonomikoak urteak daramatzen geldialdi egoeran.

Meatzaritzako megaproiektu horiek, bada, ondorio latzak eragiten dituzte sistematikoki ekonomian, gizartean, politikan eta ingurumenean, eta batez ere, langileengan, kaltetutako komunitateetan eta ekosistemetan. Hala, klaseko, generoko eta etniako eta arrazako desberdinkeria larriagotzen dute. Ondorio horiek beste edozein ekimen korporatibok eragindakoak baino okerragoak dira, lurrak eta baliabide naturalak bereganatzeari dagokionez.

Gure azterketan, Erdialdeko Amerikako iparraldea lehenetsi dugu; alde batetik, eskualdeko sektore herritarrekin historikoki izan ditugun elkartasun internazionalistako harremanengatik; eta, bestetik, estraktibismoa izugarri zabaltzen ari delako El Salvadorren, Hondurasen eta Guatemalan. Fenomenoa beste eskualde batzuetan gehiago hedatu bada ere (Txinan, Australian, Errusian, Estatu Batuetan eta Kanadan, batez ere), Guatemalatik Panamara *Erdialdeko Amerikako Urre Hesia* delakoa aurkitzen dugu. Hura, kolonia garaitik ere, meatzaritza eskualde zabala izan da, eta, gaur egun, metalen meatzaritzaren olde berri bat bizi du, batez ere, urrearen nazioarteko prezioaren igoeragatik, baina baita nikela, kobrea, lur arraroak eta beste metal estrategiko batzuen erauzketarekin lotutako megaproiektuen inguruan dagoen interesagatik ere.

Erdialdeko Amerikako iparraldeko testuinguruan nagusi dira honako ezaugarri hauek: lehen sektoreko esportazioetan oinarritutako eredu ekonomikoa, 1990ko hamarkadaz geroztik bultzatutako agenda neoliberalaren dogmatismoa, Estatuaren bahiketa oligarkikoa eta gatazka politiko gero eta biolentoagoa (segurtasun indarrak, krimen antolatua, etab.). Hala, megaproiektu korporatibo horiek korporazioen inpunitatea larriagotzen dute, protesta kriminalizatzen dute, egiturazko desparekotasunak handitzen dituzte eta zaugarritasun ekologikoa muturrera eramaten dute.

Hortaz, estrategikoa iruditu zitzaigun bira horren bitartez aliantzak indartzea, elkarrengandik ikastea, inpaktuak eta horien atzean dauden aliantza publiko-pribatuak salatzea, eta trantsizio ekososial bidezko orok izan behar duten ikuspegi internazionalista indartzea.

Premisa horietan oinarrituta, jarraian, bisitaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu aipatutako megaproiektu bakoitzeko. Horien arabera, gero, eskualdeko meatzaritzaren hedapenaren fenomenoari dagozkion joerak identifikatuko ditugu, eta, azkenik, proposamen alternatibo batzuk egingo ditugu, trantsizio ekososial bidezko eta internazionalistaren ikuspegian oinarrituta.

CERRO BLANCO, URRE MEGAPROIEKTUA (Asunción Mita, Jutiapa, Guatemala)

2007tik abian dagoen urre-erazketako proiektu hori zuzenean ezagutzeko aukera izan genuen. Hura, El Salvadorreko mugan kokatuta dago, eta, ofizialki, oraindik ez dute urrerik erazi. Hala ere, gure ustez, Cerro Blanco kasu paradigmaticoa da, bai frogatuta dauden ondorio ekosozialengatik –aztertuko dugun bezalaxe–, bai megaproiektuak Guatemalan eta El Salvadorren izan dezakeen inpaktu handiagatik. Izan ere, Ostua ibaiaren, Güija lakuaren eta Lempa ibaiaren azpiko akuiferoak haien artean lotuta daude.

Proiektuak nazioarteko hainbat enpresa izan ditu protagonista azken urteetan. Horien artean ditugu Gold Corp eta Bluestone enpresak eta bere filialak, Entremares, Elevar Resources eta abar. Horren atzean, egindako kalteen erantzukizuna lausotu nahi duen logika bat dago. Gaur egun, 2025az geroztik, Kanadako Aura Minerals enpresak du eskumena.

Hasteko, urre-erazketako megaproiektu horrek legez kontra lortu zituen lur azpiko meatzaritzarako lizentziak. Baina, lur azpian ur termalak aurkitu zituztenez, ezin izan zuten meatzaritza-jarduerarekin hasi. 2007tik 2017ra bitartean ur hori ateratzen saiatu ziren, lurraldearen partetik inolako kontrolik gabe. Ur horiek, bolkanikoak direnez, artseniko kantitate handiak dituzte. Aldi berean, energia geotermikoko proiektu bat bultzatzea pentsatu zuten, egoera berriari etekina ateratzeko. Egitasmo biek porrot egin zuten.

Megaproiektuaren aurkako erresistentziak antolatzen hasi ziren, ez soilik Guatemalan –eliza katolikoaren eta tokiko erakundeen inguruan–, baizik eta nazio biko logika batean, El Salvadorreko ingurumenaren aldeko erakundeekin batera. Zentzu horretan, mugan dagoen Güija lakuan uraren alde egindako martxa bateratuak nabarmendu nahi ditugu, baita meategiaren aurkako mobilizazio ugariak ere, baina, batez ere, 2022an Asunción Mitako herritarrei egindako kontsulta. Horretan, herritar gehienek ezezko borobila eman zieten meatzaritza proiektuei.

2021ean, Bluestone Resources enpresak, lur azpiko meatzaritza egiteko aukerarik ez zegoela ikusita, aire zabaleko meatzaritza egiteko aukera planteatu zuen. Horretarako, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio zalantzarik bat aurkeztu zuen, urte batzuk lehenago aurkeztutakoaren kopia hutsa, alegia. Enpresak Giamattei presidente eskuindarrarekin zuen aliantzari esker, gobernuak ustiatzeko lizentzia eman zion bere azken egunetan. Oraingo gobernuak, Semillaren eskuetan, indarririk gabe utzi du lizentzia hori, eta, hortaz, meatzaritza-jarduera *impasse* batean dago.

Nolanahi ere, meategia itxita egon beharko litzateke, ez soilik ingurumen lizentziarik ez duelako, baizik eta Guatemalako legeen aurka doalako ere. Hain zuzen ere, legeak jarduera hasi eta gutxienez bi urtera minerala eraztea eskatzen du, eta helburu hori ez da bete inondik inora. Zuzenean ikusi ahal izan genuen Aura Minerals enpresak

jarduera mantentzen duela meategian, agian bere aldeko testuinguru politiko baten zain, edo CIACIren arbitraje-auzitegietan salaketa bat jartzeko baldintzak lortuko dituelakoan.

FÉNIX, NIKEL MEGAPROIEKTUA (El Estor, Izabal, Guatemala)

Izabal lakuan, Red Continental Cristiana por la Paz sarearekin eta beste batzuekin izan ginen, hala nola Consejo Ecuménico Cristiano, Fundación Guillermo Toriello, Bufete para Pueblos Indígenas eta Colectivo Madre Selva erakundeekin. Haiekin batera, Iritzi Auzitegi sinboliko bat ezarri genuen, eskualdeko inpaktu ekosozialei buruzkoa. Jarduera horretan maia kektxi herriko hainbat liderrek parte hartu zuten, eta palmondoaren nekazaritza industrial eta metalen meatzaritza hedatzearen ondorioz beren lurraldean pairatzen dituzten inpaktuak salatu zituzten. Lurralde horrek Izabal lakua, Plochic harana eta Alta Verapaz departamendua hartzen ditu.

Testuinguru horretan, Fénix megaproiektua Guatemalako erauzketa-enpresen modus operandia erakusten duen kasu paradigmaticoa da. Izan ere, jardunbide horretan, nagusi dira ustelkeria, indarkeria, desjabetzea eta zigorgabetasuna, batez ere kontinenteko handienetakoa den nikel erreserba horren kasuan. Energiaren eta Meategien Ministerioak, 2004an, ustiapen-lizentzia eman zion Guatemalako EXMIBAL enpresari, 259 kilometro karratuko eremu batean metalik zegoen azter zezan. Azalera horretan hainbat herri aurkitzen dira, horien artean, El Estor. Urte horretan ere, Kanadako Sky Resources enpresak EXMIBAL enpresaren akzioak erosi zituen, eta Compañía Guatemalteca del Níquel (CGN) izendatu zuen. Hala, 2006an, CGNk nikela, burdina, kobalto, kromoa eta magnesioa erauzteko ustiapen-lizentzia lortu zuten, 25 urtez eta 248 kilometro karratuko eremu batean –muga legala 20 km² diren arren-. Aldi berean, emakidaren zonaldea kektxi herriaren lurraldean aurkitzen zen arren, Prokuradore Bulego Orokorrak ez zuen beharrezkotzat jo aurretiazko kontsulta-prozesu aske eta informatu bat egitea, Guatemalak 1996an berretsitako LANEren 169. hitzarmenak exijitzen duen bezala.

Une horretatik aurrera lurra lortzeko gatazkak larriagotu egin ziren. Horrek komunitate osoak kanporatzea ekarri zuen, eta askok salaketak jarri zituzten Kanadako justiziaren aurrean, enpresaren segurtasun langileek egindako sexu-indarkeria delituengatik eta lider komunitario bat hiltzeagatik ere. 2011n, kapital errusiarra zuen Solway Investment Group partzuergo suitzarrak Fénix eta Montúfar meatzaritza-proiektuen eskubideak lortu zituen, CGN erostearekin batera. Gainera, 2014an, Compañía Procesadora de Níquel de Izabal, S.A. (PRONICO) enpresa sortu zuen El Estoren. Enpresa subsidiario horrek nikela prozesatzeko instalazio bat du, ferronikela ekoizteko, eta Puerto Barriosen bitartez esportatzen du nazioarteko merkatuetara, batez ere, eraikuntzaren, ingeniartzaren, garraioaren, metalgintzaren eta elektronikaren sektoreetan.

Erauzketa-jardueraren ondorio kaltegarriak oso argiak dira. Larrienetako bat, hain zuzen ere, ura agortzea eta kutsatzea izan da. Izan ere, megaproiektuak eskualdeko arro hidrografiko nagusietako hirutan eragiten du: Cahabón ibaia, Izabal-Río Dulce eta Polochic. Halaber, maia kektxi herriaren lurraldea desjabetzean, meategiaren ondorioz, haien elikatzeko eta osasunerako eskubidean eragiten dute, baita autodeterminazio eskubidean eta beren kultura babesteko eskubidean ere.

Gainera, aipatu dugun bezala, indarkeria, komunitatearen zatiketa eta lider sozialen kriminalizazioa ohikoak izan dira, Estatuako segurtasun indarren konplizitatearekin. 2012an, esate baterako, Agua Caliente «Lote 9» komunitateko Rodrigo Tot liderraren semea hil zuten, zigor gisa, meategiari aurre egiteagatik eta bere komunitatearen eskubide kolektiboak babesteagatik. Halaber, 2017an, El Estoreko arrantzaleen elkartek protestak antolatu zituen meatzaritza enpresaren aurka, meategiaren kutsadurak gorritz tindatu baitzuen Izabal lakua. Protesta horietan, Polizia Nazional Zibilak arrantzale bat hil zuen. Meategiak ekoizten eta esportatzen duenari eta bere irabaziei buruzko informazioa erabat opakua da, eta ez dago Estatuaren inolako kontrolirik. Gainera, enpresak inpunitate osoz jokatzeko du.

Hala ere, epaitegietan ibilbideluzea eginez, erresistentzia antolatuek beren eskakizunen aldeko epaiak lortu dituzte. Esate baterako, 2019an, Auzitegi Konstituzionalak maia kektxi herriaren kontsulta eta partaidetza eskubideak urratu zituztela aitortu zuen. Epaian, Auzitegiak xedatu zuen Energiaren eta Meategien Ministerioak kontsulta egin behar zuela lizentzia eman aurretik, eta, hortaz, erauzketa jarduerak bertan behera uztea agindu zuen, prozesu hori Fénix proiektuak zuzenean edo zeharka kaltetutako komunitateekin egin arte.

Hala ere, 2021ean, Ministerioak, El Estoreko udalarekin eta enpresarekin batera, parte hartzeko gutxieneko bermeak betetzen ez zituen kontsulta-prozesu bat sustatu zuen. Hain zuzen, prozesua 30 eguneko setio-egoeran egin zen, militarizazioko testuinguru batean, eta lider sozialen aurkako jazarpenarekin eta mehatxuekin. Gainera, proiektuaren aurka zeuden komunitateei parte hartzeko aukera ukatu zieten, eta irregulartasun ugari erregistratu ziren.

Illo horretan, 2023ko maiatzean, Giza Eskubideen Amerika arteko Gorteak zigorra ezarri zion Guatemalako Estatuari, Agua Calienteko maia kektxi komunitatearen eskubideak urratzeagatik. Epaiak haien lurrak mugatzeko eta titulua emateko agintzen zion Estatuari, baita kaltetutako komunitateen informazio eta partaidetza eskubideak bermatzen zituen kontsulta egiteko ere, Fénix proiektuaren inguruan.

Epai horiek gorabehera, enpresak bere jarduera mantentzen du herrialdean. 2022tik 2024ra bitartean, enpresaren filialak ere zigortuak izan ziren, AEBetako Magnitsky legeari esker. Lege horrek, ustez, giza eskubideen urraketa larriak edo maila handiko ustelkeria egin duten atzerritarrak zigortzeko helburua du. Hala ere, Guatemalako Estatuak –gaur egungo gobernuak ere– ez du maia kektxi herriaren kontsulta eta autodeterminazio eskubideak bermatzeko ahalmenik edo borondaterik erakutsi. Gainera, Agua Caliente komunitatera egindako bisitan ikusi genuen bezala, bertako biztanleek ez dute inolako jabetza titulurik jaso beren antzinatiko lurraldearen gainean

duten eskubidea bermatzeko, eta segurtasunik gabeko eta mehatxuko egoera batean jarraitzen dute, Fénix proiektuari aurre egiteagatik.

GUAPINOL, BURDIN-OXIDOEN MEGAPROIEKTUA **(Tocoa, Colón, Honduras)**

Biran, Guapinol ibaia ere bisitatu genuen. Han Tocoako Comité Municipal de Defensa de los Bienes Comunes y Públicos (CMDBCP), ERIC-Radio Progreso, Plataforma Agraria, Coordinadora de Organizaciones Populares del Aguán eta Fundación San Alonso Rodríguez erakundeetako kideek burdin-oxidoen meategiaren egoerari buruz hitz egin ziguten. Inversiones Los Pinares/Ecotek enpresaren meategi hura Parke Nazionaleko lurren desjabetze handiaren ardatz nagusia da.

Enpresaren atzean Hondurasko oligarkiako parte den Facussé familia dago. Hura, hain zuzen, Aguángo haraneko nekazariei lurak kendu dizkieten olio-palmondo latifundioen jabea da. Meategia Tocoako herrian kokatuta dago, Montaña de Botaderos Carlos Escaleras Mejía Parke Nazionalaren erdian. Carlos Escaleras Mejía, parkeari izena ematen diona, 1990ko hamarkadan hildako ingurumenaren defendatzaile bat izan zen. Meategiaren atzean dagoen megaproiektu-konglomeratuak bi erauzketa-eremu, prozesatzeko instalazio bat, eta kokez hornitutako zentral termoelektriko bat biltzen ditu.

Enpresak lizentzietako bat besterik ez zuen lortu, 2014an, Juan Orlando Hernández presidentearen eskutik –Hernández gaur egun espetxean dago narkotrafikoagatik–. Haren gobernuak, 2013an, Parke Nazionalaren mugak aldatu zituen, meategia babes goreneko eremutik kanpo uzteko. Enpresak ingurumen-lizentziarik gabe eraiki zituen prozesatzeko instalazioa eta zentral termoelektrikoa, eta Nueva Lempira komunitatetik metro gutxitara.

Ekologiari dagokionez, proiektuak aberastasun natural handiko eta ur iturburu ugariko eremu bat hondatzen du, eta Guapinol eta San Pedro ibaiak kutsatzen ditu, hainbat komunitatek horiek behar dituzten arren. Prozesatzeko instalazioa eta zentral termoelektrikoa ere martxan jartzen badira, kutsadura akustikoak eta kokea erretzearen ondorioz sortutako kutsadurak ingurumen kalte handia eragingo dute, baita osasunerako kalteak ere, batez ere metro gutxitara dagoen Nueva Lempira komunitatean.

Gainera, Guapinol eta Nueva Lempira komunitateen barruan desakordioa eta istiluak sortu dira, eta erresistentzian dauden komunitateak errepresio gogorra jasaten ari dira: 32 lagun kriminalizatu dituzte, eta horietako zortzi prebentziozko espetxealdian izan dira bi urtez, irregulartasunez beteriko prozesu baten ondorioz. Azkenik, 2024an askatu zituzten, Auzitegi Gorenak akusazioak gaitzetsi zituenean. Komunitateek, indarkeria instituzionalaz gain, narkotrafikoari lotutako taldeen jarduerak ere

jasaten dituzte. Izan ere, 2024ko irailean, CMDBCP erakundeko lider Juan López hil zuten. López oso aktibo aritu zen proiektuaren aurka, eta Tocoako alkatearen eta narkotrafikoaren arteko harremanak salatu zituen.

Bisitan, gaur egungo egoera ezagutu ahal izan genuen. Izan ere, meategiaren jarduerak aurrera jarraitzeak kezka handia eragin du. Gobernuak –LIBRE alderdiaren eskuetan– Parke Nazionalaren mugak aldatzen zituen legea indargabetu zuen, eta, hortaz, meategiaren jarduera geldiarazi zuen, hura babes goreneko eremuan geratzen baitzen. Hala ere, komunitateak salatu egin du meategia pertsona armatuz inguratuta dagoela, eta, hortaz, ezin dutela jakin legea errespetatzen ari diren. Izan ere, haien ustez, meategiaren jarduerak aurrera jarraitzen du.

Segurtasun egoera ere kezkagarria da –gure bisitan, enpresaren segurtasun pribatuko kideek airera tiro egin zuten, beldurra eragiteko–. Halaber, Juan Lópezen hiltzaile intelektualek zigorrik gabe jarraitzen dute. Krimen horrek argi erakutsi du instituzioek blokeatzen dituztela udal lizentzien irregulartasunen inguruan egindako salaketak. Dena den, Lópezen hilketatik hamar egunera, eta mobilizazio handi baten ondoren, ustelkeria salaketa batek aurrera jarraitzen du. Gutxienez, zortzi lagun hil dituzte proiektuak eragindako gatazkaren ondorioz; eta, hortaz, Hondurasko eta nazioarteko erakundeen bidelaguntza ezinbestekoa da legez kontra jarduten duten proiektu horren aurkako salaketan laguntzeko. Izan ere, udalak, duela hilabete gutxi batzuk, baimenak eman dizkio enpresari, egoera indarkeria handikoa den arren.

CORPUS, URRE MEGAPROIEKTUEN UGARITZEAREN HERRIA (Choluteca, Honduras)

Cholutecan hainbat kolektiborekin elkartu ginen, hala nola Centro de Desarrollo Humano eta Plataforma de Afectados por la Minería en el Sur de Honduras erakundeekin, baita Comité Municipal de Defensa de la Naturaleza de El Corpus erakundeak Cerros del Sur meategiaren aurka biltzen dituen herriekin ere. Hura urrea erauzteko meategia da, eta aire zabaleko zein lur azpiko erauzketa egiten du. Informazioak eta lekukotzek beste meategi batzuetako eredu bera erakusten dute. Enpresak hainbat lege hausten ditu bere jardueran, eta inpunitate osoz gainera: ez du ingurumen-lizentziarik indarrean, ez du ordaindu beharreko banku bermea ordaindu, baimendu gabeko eremuetan dihardu herrigunean bertan, eta ez da erantzukizuna eskatzeko inolako neurririk.

Udal gobernuak lur azpiko artisau-meatzaritza baimendu zuen herriaren erdigunean ere. Ustiapen horren ondorioz, 1600ko eliza bat, hainbat etxe eta errepide bat hondatzen ari dira. Erakundeek salatzen dutenez, artisau-meatzariek eta enpresak makinak erabiltzeko akordioak dituzte, eta horregatik kaltetzen ari dira eraikin horiek.

Gainera, enpresak deforestazioa eragin du eta Calderas ibaia metal astunekin kutsatu du. Horrek, jakina, kalte handia eragin die ekosistemei eta bertako biztanleei.

Testuinguru horretan, beraz, kolektibo ekologistek eta sozialek hainbat salaketa jarri dituzte, eta mobilizatu egin dira, beren herrikide batzuen arbuioa jasan badute ere. Izan ere, meategiaren aldekoen eta narkotrafikoari lotutako taldeen mehatxuak eta erasoak jasaten dituzte, baina, hala ere, adoretzu borrokatzen dira. Horren adibide izan zen 2025eko ekainaren 6an egindako manifestazioa. Horretan, 400 bat lagun mobilizatu ziren, aurreko gauean kaleetan tiro eginez beldurra eragin nahi izan zieten arren. Lurralde horretan, gainera, legez kontrako beste jarduera batzuk ere egiten dira, eta horrek indarkeria maila altua eragiten du. Esate baterako, narkotrafikoak lurraldea kontrolatu nahi du, eta armen eta pertsonen salerosketa burutzen ditu.

Baina gizarte mobilizazioak ez du erakunde publikoetara heltzea lortu. Kutsadura, ondarearen suntsitzea, eta legez kontrako jarduerak frogatzen duten salaketak egin badituzte ere, ez dago egoera bideratzeko eta konpontzeko neurri eraginkorrik.

EL DORADO, URRE MEATEGIA

(Cabañas eta Sensuntepeque, El Salvador)

Bira El Salvadorren bukatu genuen. Izan ere, bertara itzuli da estraktibismoaren mehatxua, 2024an onartutako meatzaritzaren lege berriaren ondorioz. Lege horrek, bada, 2017tik metalen meatzaritza debekatzen zuen araudia indargabetu du.

Debeku hura lehen mailako lorpen historikoa eta globala izan zen. Hain zuzen ere, munduko lehen herrialdea izan zen metalen meatzaritza debekatzen. El Salvador biztanleria-dentsitate handiko herria da, eta zaurgarritasun ekosozial handia du, batez ere, estres hidrikoari dagokionez.

Lehenlegehuraahobetez onartuzuten organo lege gilean, eta gizartearen babes handia izan zuen. Horretan izan ziren gizarte erakundeak eta sindikatuak, eliza, instituzioak eta enpresarietako asko ere. Hala, "no a la minería, sí a la vida" (meatzaritza ez, bizitzari bai) leloa zeharkako erreferentzia bilakatu zen El Salvadorreko gizartean.

Baina oraingo legeak hori guztia ezabatu du, eta alfonbra gorri neoliberal jarri die berriz kapital nazionalen eta internazionalen erauzketa arloko inbertsioei, kontrol eta babes publikoarekin. Eta testuinguru politiko horretan, gainera, Bukeleren gobernu gero eta autokratikoagoak protestaren kriminalizazioa eta herritarren errepresioa erabiltzen ditu.

Cabañas, herrialdeko iparraldeko gainontzeko departamenduak bezalaxe, urrearen, torioaren eta beste metal batzuen meatzaritzarako eremu bilaka daiteke. Hantxe elkartu ginen meatzaritzaren aurkako borrokan diharduten gizarte erakundeekin eta

hedabideekin, batez ere El Dorado proiektuari aurre egin zioten horiekin. Meategi hura, izen bereko herri batean kokatu nahi zuten, Sensuntepequen, baita Cabañaseko San Isidro herrian ere.

Ekimena, hasiera batean, Pacifik Rim enpresarena izan zen, eta 72 kilometro karratuko eremu batean urrea erauzteko helburua zuen. Horretarako lizentzia eta ingurumen inpaktuaren ebaluazioa eskatu zituen 2004an. 2009an, enpresak, ez zuenez erantzunik jaso, 300 milioi dolarreko demanda jarri zion El Salvadorreko gobernuari CIADlren aurrean. Baina CIADl-k demanda gaitzetsi zuen 2016an, meategia Ozeana Gold enpresaren eskuetan zegoenean -2013az geroztik-. Hala, enpresa horrek 8 milioi dolar ordaindu behar izan zizkion gobernuari. Lehen lege hura izan zen megaproiektuari amaiera eman ziona.

Meatzaritzaren aurkako erresistentziaren partaideek prozesu horren ondorioak nabarmentzen dituzte: enpresak komunitateetan eragindako barne zatiketa, enpresaren aldeko politikariek sortutako tentsioak, eta aktibisten, biztanleen eta nekazarien aurkako mehatxuak, jazarpena eta hilketak. Horietako asko zigorrik gabe jarraitzen dute.

Aldi berean, meategi hori edo beste batzuk berpizteko arriskuaz ere hitz egiten digute, eta, horiekin, ingurumen inpaktu kaltegarriak, errepresio biolentoa eta desjabetzea ere.

ONDORIOAK

Bisitek, elkarriketek, bilerek, iritzi auzitegiek, biltzarrek eta aztertutako dokumentazioak hainbat ondorio ateratzeko aukera eman digute, Erdialdeko Amerikako iparraldeko metalen meatzaritzaren testuinguruari eta etorkizunari dagokienez:

1. Mineralen erauzketa, irizpide demokratiko eta publiko-komunitarioetan eta arriskuak murrizteko irizpideetan oinarritzen bada, sektore herritarren behar materialak eskala globalean asetzen laguntzeko jarduera bat izan daiteke, betiere, trantsizio ekosozial bidezko baten esparruan egiten bada. Estraktibismoak, aldiz, mineralak kontrolik gabe ustiatzen dituen sistema bat finkatzen du, enpresen irabaziak maximizatzeko helburuz eta megaproiektuen bitartez, eta ez ditu komunitateen eta naturaren eskubideak errespetatzen.

Erauzketa-jarduera oro, beraz, plangintza demokratiko lotesleko irizpideetan oinarritu behar dira, ezin dituzte muga biofisikoak gainditu, desazkunde bidezkoarekin eta asimetrikoarekin bat egin behar dute, jabetza eta kontrol komuna izan behar dute eta herritarren beharrei lotuta egon behar dira.

2. Erdialdeko Amerikako iparraldean, meatzaritzako megaproiektuen fenomeno hedatzen ari da, kapitalismoa geldialdian badago ere. Horietako gehien-gehienak kanpoko enpresa transnasionalek dira eta/edo horien kontrolpean daude, maiz, tokiko kapitalekin aliantzan. Haien helburu nagusia irabazirik handiena lortzea da, esportatu edo espekulatu bitartez, eta, horretarako, eskualdeko aberastasun naturala eta araudi ultraliberala baliatzen dituzte. Izan ere, araudi horrek enpresen inpunitatea bermatzen du, eta, hortaz, eskubide kolektiboak eta naturaren eskubideak urratzen ditu sistematikoki.

3. Ekonomiari dagokionez, Erdialdeko Amerikako iparraldeko meatzaritza megaproiektuen onurak enpresa handientzat besterik ez dira –eskualdean, urrearen meatzaritza balio gordailu desiratu da–. Estatuak, aldiz, oso tasa eta zerga gutxi jasotzen dituzte, baina justizia pribatuko epaitegien aurrean (adibidez, CIADI) milioiak galtzeko arriskua dute. Halaber, sortutako enplegua, eskasa eta prekarioa da, eta ez du balio handirik nazio mailan.

Meategiek, gainera, ez dituzte herrialdeko kate ekonomikoak egituratzen –esportaziora bideratzen baitira–, eta, areago, azpiegitura-megaproiektuen garapena, lurren desjabetzea eta monolaborantzak (olio-palmondoa, azukre-kanabera, etab.) sustatzen dituzte.

4. Ingurumenari dagokionez, ekosistemei eragindako kalteak handiak eta sistematikoak dira. Nabarmena da lurren desjabetzea eta akuiferoen kutsatzea. Azken hura bereziki kezagarria da El Salvadorren kasuan, herrialdeak estres hidrikoa jasaten baitu, eta Honduras eta Guatemalaren kasuan, non biztanle gehienek ibaiak behar dituzten bizirik irauteko. Guatemalako korridore lehorrean, hain zuzen ere, ingurumen zaurgarritasuna larriagotzen da, eta eskualde osoak bereziki jasaten ditu klima aldaketaren ondorioak.

5. Politikari dagokionez, meatzaritzako megaproiektuek instituzioen bahiketa larriagotzen dute; aliantza publikoak, pribatuak, militarrek eta krimen antolatuenak indartzen dituzte herritarren aurka; irabazien aldeko esparru juridikoak bermatzen dituzte, herritarren eskubide indibidual eta kolektiboen aurka; egiturazko ustelkerian oinarritzen dira; eta errepresio biolentoan, ikaratzean eta hilketetan oinarritutako estrategiak garatzen laguntzen dute.

Hori guztia, are larriagoa da autokrazia atzerakoia eta ultrakapitalista nagusitzen ari den testuinguru batean. El Salvador horren adibiderik argiena da. Eskualdeko geopolitikan, ekonomian eta arlo militarrean esku hartzen duten botere hegemonikoen dinamika inperialistak, gainera, joera hori indartzen du.

6. Gizarteari dagokionez, meatzaritzako megaproiektuek desadostasun komunitarioak eta sozialak berariaz xaxatzen dituzte, lidergo antidemokratikoak sortzen dituzte, diskurtso eta jardunbide klasistak, patriarkalak eta arrazistak ugaritzen dituzte eta bi-zi-baldintzak hondatzen dituzte, oro har.

Hala, hedatzen ari den fenomeno baten aurrean gaude. Haren atzean nazioarteko eta tokiko kapitalen interes korporatiboa eta Iparralde Globalaren asmo kolonialak aurkitzen ditugu. Fenomeno horrek, bada, ustelkeriako eta indarkeriako dinamika politikoak indartzen ditu eta mota guztietako ondorio ekosozial larriak eragiten ditu.

PROPOSAMENAK

Meatzaritzari buruzko eztabaida bidezko trantsizio ekosozial baten parametroetan sartu beharko litzateke eskala globalean: plangintza demokratiko loteslea, desazkuntza bidezkoa eta asimetrikoa, esparru komuna indartzea, muga biofisikoak ez gainditzea, gehiengo sozialen behar materialak asetzea, eta inperialismoaren eta kolonialismoaren aurrean beharrezkoa den ikuspegi internazionalista ezartzea. Premisa horietan oinarrituta honako alternatiba hauek proposatzen ditugu:

1. Erdialdeko Amerikako iparraldean meatzaritza etetea, eztabaida trantsizio ekosozial bidezko baten parametroetan kokatzen ez den bitartean.

2. Meatzaritza debekatzea zaurgarritasun ekosozial eta kultural handiko lurraldeetan, batez ere, estres hidrikoa sufritzen duten eskualdetan, mugaz gaindiko kutsadura izan dezaketen eremuetan, eta ekonomia baserri-erretan oinarritzen diren horietan.

3. Enpresen jarduerak demokratikoki eta modu loteslean arautzea, eta, hortaz, enpresen zigorgabetasuna bermatzen duten egiturak eta ekimenak ezabatzea: merkataritza eta inbertsio hitzarmenak, CIADIn parte hartzea, inbertsioen arauketa esparrua, eta abar.

4. Eskualdeko hiru herrialdeetan protesta kriminalizatzen duten sistemen oinarrian dauden egiturak, araudiak, figurak eta jardunbideak ezabatzea.

5. Ekoiztutako eta inportatutako ondasunen balio-kate osoan giza eskubideak bermatzen direla bermatuko duten egitura eta arau lotesleak exijitzea Iparralde Globaleko herrialdeei eta enpresei, batez ere, hornigaien kasuan (meatzaritza eta beste arlo batzuk).

Lurralde indigenetan, gainera, enpresek nazioarteko arauak bete beharko dituzte, hau da, aurretiko baimen aske eta informatua, justiziarako sarbidea eta komunitateek erabakietan parte hartzea.

6. Elkartasun internazionalistako harremanak indartzea Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko sektore herri-tarren artean, honako premisa hone-tan oinarrituta: trantsizio ekosoziala bidezkoa izango da edo ez da izango.